

fall  intestinal
.com

ENPa DESKONEKTATZEKO PROTOKOLOA

1-LAGUNEA




Maskara jantzi eta eskuak garbitu ostean, langunea prestatzeari ekingo diogu. Honako hauek aholkatzen dira:

- Sarritan erabiltzen ez den etxeko leku edo gela bat, kutsadurarik eta aire-korronterik ez duena.
- Erraz garbitu daitekeen gainazal laua, gutxienez 50 × 50 cm-koa. Gainazal horrek garbi egon beharko du prozedura bakoitza baino lehen (urez eta lixibaz, ondo urberrituta eta ondo lehortuta).
- Eserita egoteko bide ematen dizun aulki bat, orratz-edukiontzi bat eta hondakin-materiala botatzeko paperontzi bat.
- Ez da etxe-abererik hurbil egon behar.

2. EREMU ESTERILAREN PRESTAKETA

Eskuak garbitzeko protokoloari ondo jarraitu badiozu, puntu honetarako ez duzu eskularru esterilik jantzi behar.

- 1. Zabaldu oihal esterilaren ontzia horretarako den erlaitzetik.
- 2. Bilatu oihaleko goiko ertzak eta hartu esku bakoitzeko bi atzamarrez.
- 3. Altxatu, besoak luzatuta izanez eta mahaia, gorputza edo beste elementurik ez ukitzeko arreta jarritz.
- 4. Ipini oihala mahai gainean.
- 5. Agerian geratzen den oihal esterilaren gainazalari deituko diogu "eremu esteril".



*Erabili koadroak burutzen duzun urrats bakoitza erregistratzeko

3. BEHARREZKO MATERIAL

Utzi materiala eremu esterilean, “Konektatzeko protokoloko” jarraibideak betez, gainazal hori elementu kutsatuez ukitu gabe.

- Disoluzio antiseptikoa eta disoluzio hidroalkoholkoa
- Eremu esterila
- Eskularru esterilak
- 2 gaza-pakete
- 10 ml-ko 3 xiringa
- 0,9 × 25 mm-ko kargatzeko orratz 2
(1, bi xiringa serumez kargatzeko, eta 1, zigilatze-produktua kargatzeko)
- Zigilatze-disoluzioko bial 1
(Fibrilin®, Taurolock®; zentroko protokoloaren arabera)
- % 0,9ko serum fisiologikoko 10 ml-ko 2 anpoila edo aurrez kargatutako 10 ml-ko 2 xiringa esteril
- Orratz-edukiontzia



4-ENParen DESCONEXIOA

1. Utzi agerian, maneiatzea erraza izan dadin, ENPa konektatuta duen kateterraren aldea.
2. Itzali ENPko perfusio-ponpa eta itxi infusio sistema. Bete infusio sistemaren eta erabiltzen duzun ponpa peristaltikoaren berariazko jarraibideak.
3. Errepikatu berriro eskuak garbitzeko protokoloa.
4. Jantzi eskularru esterila esku nagusian eta kargatu xiringak, ikasitako teknikaz. Ez okertzeko, utzi serum fisiologikoko 2 xiringak orratzik gabe, eta zigilatzeko produktua duen xiringa, orratzarekin. Horrela, bereizi ahalko dituzu.
5. 3 xiringak prestaturik utzi ostean, beste eskularrua nagusia ez den eskuan jantzi behar duzu.

- 6. Gailuak matxarda bat badarama, itxi matxarda gaza batez (eskularru esterilak ez kutsatzeko).
- 7. Esku bakoitzean gaza bat erabiliz, deskonektatu infusio sistema biokonektoretik.
- 8. Garbitu biokonektoreko konexio-zona % 0,5 baino gehiagoko kontzentrazioko klorhexidinan blaitutako beste gaza batez (konexioaren zatia soil-soilik, tapoiaren gainerako atalak herrestatu gabe). Utzi lehortzen 30 segundoz.
- 9. Konektatu serum fisiologikoz kargatutako xiringa 1 biokonektorearekin.
- 10. Askatu matxarda ezkerreko eskuaz, gaza baten laguntzaz, eskularru esterilaz ez ukitzeko.
- 11. Xurgatu kantitate txiki bat xiringatik, odola atzera isurtzen dela egiaztatzeko, eta sartu serum fisiologikoko 10 ml-ko bi xiringak bata bestearen ondorez, kateterra *push-stop* teknikaz (garbitu-gelditu-garbitu) garbitzeko.
- 12. Baztertu bi xiringak.

5. HEPARINIZAZIOA / ZIGILATZEA

Bete zure zentroko protokoloko jarraibideak, maiztasuna, disoluzioa eta kantitatea

1. Kateterra serum fisiologikoaz garbitu ostean, konektatu zigilatze-disoluzioa duen xiringa eta sartu zure zentroko protokoloan agindutako kantitatea, *push-stop* teknikaz.
2. Zigilatzen bukatzeko, EGIN PRESIO POSITIBOA (sartu azken 0,5 ml-ak, matxarda itxi bitartean), odola kateterrera atzera ez isurtzeko eta tronborik eratu ahal ez izateko.
3. Kendu eta baztertu xiringa.
4. Biokonektoreari Swabcap® motako tapoi bat gehitu ahal diozu (desinfekzio pasiborako) o biokonektorea bakarrik utz dezakezu (zure zentroko protokoloaren arabera).

ADI

- Atal honetan deskribatutako protokoloa orientagarria da.
- Zure zentroan dauden materialak edo emandako protokoloak hein batean alda daitezke.
- Gomentatzen dugu zalantzak zure erreferentziako taldeari galdetzea eta zure zentroan azaldutako jarraibideak betetzea.